

UME KANTAK

Lorea Unamuno, Maribi Unamuno

Euskal Herriko Unibertsitatea
lorea.unamuno@ehu.es, victoria.unamuno@ehu.es

Abstract

On this paper we have written and edited children songs in Basque, that have traditionally been sung to infants mostly by parents, grandparents and babysitters. Besides close relatives, these children songs may also be useful to kindergarten and infant school teachers. These children songs may remind readers of lyrics and melodies from their childhood. We want to provide the readers and listeners with these lullabies together with their lyrics and music, so that they may learn or repeat them as they wish.

Laburpena

Lan honetan ume txikiei kantatu ohi izan zaizkien kantu batzuk idatzi eta ahotsean editatu ditugu. Ume kanta tradizioan, batez ere gurasoek, aitita-amamek eta zaintzaileek kantatu izan ohi dizkie umeei. Etxekoez gain, haur eskolako zaintzaileentzat edo haurtzaindegietakoentzat ere erabilgarri izan daitezke. Irakurlearengan izan dezaketen efektua, bere haurtzaroko doinuak eta letrak gogoratzea izan daiteke. Irakurle-entzulearen esku uzten ditugu ume kantok, euron letra eta doinuekin, hark ikasi, errepikatu edo, beste barik, ezagutu ditzan.

Keywords: children songs, lullaby, recitation, game

Hitz gakoak: ume kanta, lo kanta, erreztatatu, olgeta

1. Sarrera

Artikulu honetan guztira, kanta, erreztatatu, jolas eta ipuin, hogeita lau unitate dakartzagu; horietarik hogeita hiru Aulestin jaso ditugu.

Hogeitabatonek guraso eta besteak aitita eta amuma genituen Klaudio Unamuno eta Miren Garateren opari dira; euren ume denboran, hau da, hogeigarren mendearen hasieran ikasi eta, 1980-1990 inguruan, loba jaioberriak besoetara heldu ahala, memorian iratzarri eta kanta bihurtu zitzaizkienak. Beste laurak lagunengandik opariak dira.

Antzinatasuna eta jatorria aipatzeari informazioa eskaintzea deritzogu, izan ere, informante zaharrenaren adina kontuan hartuz gero, gutxienez 1900era arte garoizelako, baina ez dugu irizpide hau berez gainbalio moduan aldarrikatzen; gauza bera jatorriari dagokionean, Aulestin jasoak izateak ez du adierazten hangoak direnik esklusiboki, hain zuzen ere, euskaldun guztion edo gehienon ondaretzat ditugu.

Ume kanta hauek entzutean errez gerta daitezke entzuten diharduenarentzat ezagunak izatea, agian, beste hitz batzuekin, beste doinu batekin edo beste erritmo batekin; baita hemen aipatzen ez den beste ahapaldiren bat edo zernahi den gogoratzea ere, ahozko transmisioan gertatu ohi den moduan. Lo, gordeta, ahaztuta izaten ditugu geure memoriaren zokondoren batean, baina entzutean edo kontestuan jartzen garenean, biztu egiten zaizkigu, horixe da euron balioetariko bat, efektu biderkatzailea. Balio dezakete,

¹ Eskerrak Ariztondo, J., Elexpuru, N. eta Mendieta, G. lagunei ordaindu ezineko opariengatik. Eskerrak, baita, Aldekoatolara, M.ri doinuak identifikatzen laguntzengatik. Euskalingua 2014,24,78-85

beraz, norberaren inbentario pertsonalean integratzeko, gehitzeko, nahastatzeko eta eurokin ondo deritzoguna egiteko: kantatu, egokitu, pertsonalizatu, moztu, luzatu, errepikatu...

2. Ume kanten inguruan

Adin bakoitzean kontu diferenteak esan ohi zaizkio umeari eta adin guztietan umeak informazioa hartzen du. Hasieran, nagusia da agentea, igorlea eta honek igortzen dion informazioan, hitzen adiera izan ezik, beste guztia ulertzen omen du umeak (Trehub 2013). Edukien gaurkotasuna, gaiena, zalantzagarrria da kasu batzuetan, baina ume kanta hitzen adiera baino harantzago doaz, adiera baino lehenagokoa da doinua eta doinuan sortzen omen da atxikimendua (Flem 2009: 31).

Kantuak prisa bako unearen berri ematen du, kontaktu fisikoa dakar, umea eta zaintzailearen arteko loturak ezartzen ditu, elkar ezagutzeko bideak zabaltzen ditu, zaintza sentimentua sendotzen lagundu dezake eta umeari bere gorputza, bere burua eta bere hitz egiteko gaitasuna ezagutzen hastea ahalbidetzen dio (Flem 2009: 32). Gerora, umeak hitzen adiera zenbateraino ulertzen duen zehaztea gaitza bada ere, heldu ahala, interakzioa azaltzen da harremanean, umearen barrea, jolaserako gogoia adieraztea, nagusiaren eskakizunei erantzutea, nagusiarekin batera kantatzea, etab.

Jaioberriari zein lo egiteko dagoen umeari zainzaintzaileak, beste barik, mmmmm esaten dio, eztarrian sortzen den hotsa, ahoa bera zabaltzen ibili barik ateratzen dena, luzea, giza hotsa, oinarria, ez bokala ez kontsonantea, hotsa da eta dardara du; paparrean eskua ipiniz gero, dardara, erresonantzia

nabaritzen da, eta, jakina, umea paparrean ipiniz gero, erresonantzia hori entzuten du, bihotzaren taupadarekin batera; hotsa ezagutzen du, hots horrek badagoela bera zainduko duen norbait adierazten dio, negarra baretzen dio, adimena bizten laguntzen dio, horixe dateke umeak jasotzen duen informazioa.

Lo eragiteko melodia bada, honek umea erlaxatzen du, arnasa lasaitzen dio, bihotz taupada geldotu eta loaren bidean ipintzen du. Olgetakoa bada, eskuak, hatzamarra, aurpegia, matrailak, etab., gorputzaren zatiak erakutsita, bere gorputza ezagutzen hasteko laguntza ematen dio. Umearen izena dutenak, dirudenez, bere buruaz jabetzen hasteko lagungarri izaten dira. Umeak identifikatzen duen lehenengo hitza, edo hotsa, bere izena izan ohi da, bere buruaren kontzientzia hartzen hasteko lehenengo hitza; heldutan ere, norbere izena entzutea ei da arinen erantzuten diogun estimulua. Hor gune subkortikalean grabatzen denak, beste guztia ezabatuta dagoenean ere, azkenera arte irauten omen du (Pásaro 2002: 19). Azkenik, errezitatzen direnak, besteak beste, hizkuntzarekin jolas egiten erakusten die.

Hotsaren igorpenean feedbacka dago, kantuak, doinuak, melodiak, erritmoak, tonuak umeari on egiten dio eta, ez ote dio nagusiari berari ere on egiten? Nagusiak umeari bizitza kontu diezaioke eta kontaktzen dio, batzuetan istorio absurdoak, beste batzuetan intraszendenteak, beste batzuetan olgetariak eta beste batzuetan dramatikoak. Zertarako kontaktu hitza ulertzen ez duenari? Baliteke umeari kantatzea norbere buruari kontaktzea ere izatea; baina, lan honetan ez goaz bide horretatik.

3. Ume kanten ezaugarri batzuk

Neurozientziak argi utzi omen du musikak berez izan dezakeela eduki semantiko intrinsekua (Ball 2010: 443). Ume kanten musika espezifikoki lantzea musika adituaren zeregintzat badugu ere, S. Trehubek diotenaren arabera, ume kantetan unibertsalak dira tonu altua, tempo geldoa, erritmo erregularra eta errepikapenak. Ezaugarri horiek hemen ditugunetan betetzen dira.

Hots unitateen neurri luze, labur zein errepikatuak; erritmo erregularrak; ahots soliak, baxuak zein xuxukatuak; melodia ez konplexuak eta goranzko tonuak, zalantza gabe, edukia dute eta, agian, hitz egiten ikasteko eta hitz egiten hasteko aurrekari dira (Trehub 2013), hau da, umearengan hitz egiteko motibazioaren pizgarri izan daitezke.

Hots unitate horiek edukidunak zein edukigabeak izaten dira, errepikatu ohi dira, eta benetako kontakizunak baino gehiago hotsaren betegarri dirudite, hortaz, ez dira ezinbesteko, zeren, nahiz eta letrak kantatzen hasi, hitzak amaitzen direnean, doinua kantatzen jarraitu daiteke, doinu hutsa, hitzik bakoa.

Hitzen hotsari dagokionez, aliterazio ugari azaltzen da, errepikapena mugarik gabe egin daiteke eta galdera egitea ere oso ohiko da, umeak erantzutea espero delako barik, galderaren doinuak goranzko tonua erabilteko aukera eskaintzen duelako.

Igorlea kontalari-kantari bakarra izanda ere, bakarriketa, elkarrizketa, kontaketa dramatikoak, banala, erlijiosoak, iraganekoa, garaikoa, umea protagonista duen bigarren pertsona, beste pertsonaia batzuk sartzen dituen hirugarrena, pertsona errealean zein fantasiakoen aipamena, animalia animatuak, iraganeko kontuak, oraina, etab. modu askotan gauzatu daitezke gaiak eta narrazioa.

4. Ume kantak

Bildutako unitateetatik hamalau kantak dira, zortzi errezitatuak eta bi mikroipuinak; denei ipini diegu lehenengo bertsoa izenburutzat. Hamalau kantak hiru sailetan banatu ditugu, halan, lo eragitekoak, olgetakoak eta gorputzarekin olgetakoak bereizi ditugu. Lo eragitekoen atalean sartu ditugu *Ababatxue* eta *Norena zara*; olgetakoen sailean *Abarketak urrututa*, *Tanparran Pantan*, *Arre Arre Mandako*, *Arre Arre Triko Triko*; gorputzarekin olgetakoenean *Ababa*, *Maro Marotxu*, *TxaloPin Txalo*, *Bat Matxin Parrat*, *Lehenengotxu hori*, *Ala Kinkirrinera*, *Txankurrilo Kaminero*, *Antonio Polonio*. Errezitatuak sail bakarrean daude: *Mixo-Mixote*, *Arraskala Tximine*, *Din Dan*, *Jose-Mose Kitarra*, *Txominen Andrea*, *Atuxe-Matuxe*, *Susubil* eta *Esa Bat*. Azkenik, mikroipuin biak *Peru eta Marixe* eta *Sientate subilaurki*.

4.1. Lo eragiteko kantak

Lo eragiteko kantak umea kuman zein besoetan dela kantatzen dira. Umea besoetan badago, ea instintiboa da nagusiaren gorputzaren mugimendu geldoa, dela atzera eta aurrera, dela albo batera eta bestera. Tonu baxuan eta erritmo geldoan kantatu ohi dira, erlaxatzeko bide izan daitezten. Nagusiak aukera dezake ahapaldi bera errepikatu, ahapaldiren bat baino ez kantatu, ala berriak asmatu.

4.1.1. Ababatxue



Sail honetan lehenengo ipini dugu *Ababatxue* izenekoa. Nahiko laburra eta ahapaldi bakarrekoa, baina, era berean, amai bakoa da, kantariak gogaitu artekoa edo, bestelan, umea edo, batzuetan nagusia bera, loak hartu artekoa.

Ababatxue lo tiritaine

Ez egin lorik basuan

Otsoren batek jan ez zagiezan

Bildotsa zarielakuan.

Mmmmmmmmm

4.1.2. Norena zara Norena



Bigarren lo kanta honetan zortzi ahapaldi ditugu gogoan, eta horietako bateren bat asmatua da. Edukiaren arabera banatuta aurkezten ditugu, lehenengo hiru eta gero bost. Hasierako hiru ahapaldiotan eduki erlijiosoak agerikoak da, euskal gizartea oraingoa baino erlijiozaleagoak kantatu izan duenaren seinale. Zerua,

angeruak, Jainkoa hor daude, baina, lehen esan dugun moduan, bakoitzak bere bertsioa egiteko askatasuna hartu dagiala.

Zeruko aingerutxu,
zeruan ze barri?
zeruan barri onak
orain eta beti.

Norena zara norena,
Norena norena?
Norena izango naiz
Jangoikoarena.

Norena zara norena,
Norena norena?
Norena izango naiz
Aita ta amarena

4.1.3. Txikitxu Polittori

Aurrekoaren doinu berean, beste ahapaldi batzuk, honetan amak umeari bere katiguaren berri ematen dio; Honetan ere, hirugarren ahapaldian egileen egokitzapena duen forma azaltzen da: *Libriak libre dira/libria zara zu*. Laugarrena, zaharren eredura asmatutakoa da, eta, azkenik, bosgarrena, absurdoa, nahi beste bider kantatzekoa, errepikatzekoa.

Txikitxu polittori,
Zu neure laztana
Katigatu ninduzun
Libria nintzana

Libriak libre dira,
Zu ta ni katigu
Libre dagoen txoriak
Nunahi kantatzen du

Libriak libre dira
Libria zara zu
Libre dagoen txoriak
Nunahi kantatzen du

Kale barrendik hasi
Kale guneraino
Ez da politagorik
Gure Mitxel baino

Lolotxu ta lolotxu
Lolotxu zara zu
Lolotxu ta lolotxu
Lolotxuren ama

4.2. Umearekin olgetakoak

Ume kanta hauek lo egiteko direnak baino erritmo bizkortxoagoa dute, ez dira hain bareak, eta ohikoa da umearen gorputza mugitzea.

4.2.1. Abarketak Urratuta

Galtzarbeetatik heldu umeari, norbere belauen ganean zein mahai ganean tente ipini eta jagiak eragiten zaizkio. Ahapaldi bakar hau nahi beste bider errepikatu daiteke edo doinua bakarrik kantatu, letra barik. Aurrekuaren bigarren zatia, hau da, eskualdatzeko doinua erabilten da. Dirudienez, letra xx. mende hasieran gehitu zitzaion aurrekuari, doinua hobeto gogoratzeko-edo. Edozelan dela, umeak buruaren pisuari ondo eutsi eta gorputza be apur bat tentetuta dituenetik aurrera kantatu dakioke kanta hau; erraz gerta daiteke umeak kolaboratzea, ankekin indar eginez.

Abarketak urratuta
zapatarik ez
Bermion gelditu
nintzen oineko minez.

4.2.2. Tanparran Pantan

Aliterazioa eta errepikapena dira nagusi ume kanta honetan eta *Abarketak Urratutaren* antzera, umeari galtzarbeetatik heldu, norbere belauen ganean zein mahai ganean tente ipini eta jagiak eragiten zaizkio.

Abarka-mantak dioenean, jakingarri da oina jazteko zapiak erabiltzen zirela, gaurko kaltzen lekuan eta zapi horiei *mantak* zeritzen. Ohikoa da, bestalde, umeari jantziak erosteko eskaintza egitea eta umearen izena esatea, azken bertsoan esaten den *Gure Umeantzat* delakoan, gure+izena+ntzat erabilten dela. Ohargarri deritzogu baita umeari esaten zaion “gure” izen ordearen erabilerari; tradizioan etxeakoak *gure* izenordeaz identifikatu izan ohi dira, *gure aita*, *gure ama*, *gure umea* edo *gure+izen berezia*. Bertso honetan guztira sei silaba behar direnez, izenaren silaben egokitzapenak egiten dira, halan, bat sobera badago, -re- kentzen da, esate baterako, *gure Oihana-ntzat*, edo silaba bat falta bada, txikigarria gehitzen zaio, esate baterako, *gure Jon-txu-rentzat*

Tanparran pantan
bihar Bilbora noie
Tanparran pantan
Abarka mantatan
Tanparran pantan
Ta norentzako dira
Tanparran pantan
Gure Maitetxuntzat

4.2.3. Arre Arre Mandako

Norbera jesarrita dela, anka ankaren ganean ipini, umea jesarri norbere oinaren ganean, umearen sendotasuna edo adinaren arabera, galtzarbeetatik zein eskuetatik heldu eta jagi txikiak eragiten zaizkio, ondokoa kantatuz. Gernika eta Lekeitio ageri diren kontestu berean agertu daitezke beste bi herri izen, punta banatan edo kontrako norabidean daudenak.

Arre arre mandako
bihar Gernikerako
Etzi Lekitorako
Handik zer ekarriko
zapata ta gerriko
zapata ta gerriko
ta nonrentzat izango
gure Mitxelentzako
gure Mitxelentzako.

4.2.4. Arre Arre Triko Triko



Doinua aldatu arren, kanta honekin zein aurreko *Arre Arre mandakorekin* bardin olgetan da. Tonua zolitu, mugimenduen abiada azkartu edo moteldu egin daitezke.

Arre arre triko triko
Asto berenue
Okerreko bidetatik
Nora ete due.

4.3. Gorputzarekin olgetako kantak

4.3.1. Ababa

Ume txikiari hotsak sortzen erakusteko edo hotsa sortzeko gaitasuna duela sinetsi eragiteko, azken baten, hitz egiteko gaitasuna duela jabetu dadin izan daiteke hurrengo jarduera hau; ez da kanta, baina jarduera bera interesgarritzat dugu. Umearen eskua norbere ahoaren parera ekarri eta norberaren ahotsez, a bokala luzaro ahoskatu; eskuarekin ahoa estali eta ahotsa moztu egiten da, hotsari bide ematea-bidea oztopatzea alternatzean *a-ba-a-ba-a-ren* antzerako hots jokoak sortzen da.

Hori berori umearen ahoaz eta norbere eskuaz ere egiten da, umea hotsaren sortzaile izatea lortu arte ahaleginak egin ohi dira; norbere eskuarekin hasieran, eta berea eskua norberak hartuta gero, *a* hotsa esatean, hots hori moztu-askatu sekuentzia sortuta, umearekin olgetea da jarduera honetan egiten dena. Une baten, umea bera hasten da bere eskua ahora eroan eta bere moduz olgetan, hotsa sortu eta moztu-askatu sekuentzia egiten.

4.3.2. Maro Marotxu



Umea bere eskuekin-eta konturatzen has dadin, txikiagoa denean umeak ondo ikusteko moduan, norbere eskuari eragiten zaio bira, umearen arreta norberagantzeko ahaleginean. Umearen eskuari norberak helduta ere eragin dakioke, eta azkenean, umeak kantari erantzuten ikasten du, bere eskua berak bakarrik mugituz, eskuarekin *Maro Marotxu* eginaz. Esku bieie eragitea, lehenengo batarekin gero bestearekin, eta antzerako aldaketak nagusiaren erabakimenean geratzen dira, norberak jakiten du-eta, adin bakoitzean noraino hel daitekeen edo umeak zer ikas dezakeen.

Maro marotxu
Eragiozu
Eskutxu horri
Behin batera eta
Behin bestera.

Maro marotxu eragiozu
Eskutxu horri
Behin batari
Ta behin bestiari.

4.3.3. TxaloPin Txalo



Umearen esku biak norberak hartuta elkar jo eragiten zaio, erritmoa jarraituz. Umeak laster ikasten du berak jotzen txaloak esku biekin.

Txalopin txalo
Txalo ta txalo
Katutxua mixpilian
Ganian dago.
Dago badago,
Balego bego
Zapatatxu barri batzun
Begira nago.

4.3.4. Bat Matxin Parrat



Umearen hatzamarrek banan-banan hartuta, kontatu.

Bat Matxin parrat
Bi Matxin ipurdi
Hiru kolkua bete diru
Lau sardina makilau
Bost koskoten kosk

4.3.5. Lehenengotxu hori



Eskuko bost hatzamarren ibilbidea egiten da, txikienetik hasita, bakoitzaren ezaugarri bistakoena azaltzen den artean. Azkenari enfasia eman ohi zaio. Esku batarekin egin dena, jarraian bestearekin egin daiteke, batez ere, umea gustura dabilela ikusiz gero.

Lehenengotxu hoooooori,
Punta bihetz hoooooori,
beste guztin artien,
txikia dozu hoori.

Bigarrentxu hoooooori,
Punta bihetz hoooooori,
beste guztin artien,
polita dozu hoori.

Hirugarrentxu hoooooori,
Punta bihetz hoooooori,
beste guztin artien,
luzea dozu hoori.

Laugarrentxu hoooooori,
Punta bihetz hoooooori,
beste guztin artien,
sendoa dozu hooori.

Bosgarrentxu hooori,
punta bihetz hooori,
beste guztin artien,
lodia dozu hooori.

4.3.6. Ala kinkirrinera



Hau edozein unetan kantatu daiteke; txikiagoa denean umeari altzoan jagiak eragiteko izan daiteke zein, nagusitxoagoa denean, elkarrri eskuetatik helduta, korrua egin eta biraka ibiltzen den artean kantatzeko. Honetan ere umearen izena azaltzen da, eta norbere umearen izenaren silaba kopurua egokitu egiten zaio bertso-lerroari; biraka ibiltzen, bira alde batera eta amaitzen bira bestera egiten da.

Ala kinkirrinera
Ala samurrera
Irati plaza barriko
gira hadi beste aldera

4.3.7. Txankurrilo Kaminero



Umea altzoan norbere belauen ganean jarrita dala, jagi txikiak eragiten zaizkio.

Txankurrilo kaminerok
ez deko diruurik,
hiru alaba ei deukoz
ezkondu guraarik,
laugarrena semie
kapota zaharraakin,
konejua dirudi
bere bizerraakin.

Aititte ta amuma
Asarratu diire,
Aitittek amumari
Kopetatik tiire
Tire ta tire
Alkarrenak diire
Tire ta tire
Konponduko diire.

4.3.8. Antonio Polonio



Honetan umea altzoan hartuta jagiak eragiten zaizkio. Deigarri egin daiteke gaztelaniaz esaten den “pasa por aquí”, ohikoena ez bada ere, beste baten agertzen dira gaztelaniazko hitzak *Subilaurki* deitu dugun mikroipunean.

Antonio Polonio

Pasa por aquí
Errotako txakurtxuek
erdera ei daki

4.4. Errezitatuak

Errezitatuak atala sortu dugu gehienak ez direlako kantatzen. Hitz neurtuetan esandako kontakizun erritmikoak dira. Eurotariko batzuetan hain bistakoa izan ez arren, beste batzuetan asmo pedagogikoa ageri da.

Ia denen egoera umea nagusiaren altzoan den umea da. Errezitatuotan, kantetan lez, nagusia eta umearen arteko kontaktua etenbako da.

Azken bertsora heltzean, enfasi berezia erabiltzen da, hala nola, erritmoa aldatzea edo gorputzaren bat-bateko mugimenduren bat egitea edo umeak espero ez duen zerbait, ezustekoa, errezitatuaren monotonia apurtuko duena.

4.4.1. Mixo Mixote



Olgeta eskuetan eta aurpegian oinarritzen da. Nagusiak umearen aurpegian esku biak ipini eta goitik behera, belarri ondoetatik okotserantz, erdi-igurtzi erdi-laztandu egiten du, gozo. Hau bardin egin dakiok umeari norbere eskuekin, zein bere eskuei norberak helduta, zein bere eskuekin norbere aurpegia igurtziz. Amaierako ahapaldira heltzean, *jaten jaten jaten* esatean, eskuekin aurpegia hiru bider jotzen da, *jaten* esaten dan aldi bakoitzean behin.

Lexiko aldetik, batean *gaztaia eta ogia* esan arren, bestean *txitxi eta papa* hitzak sartzen dira, umeentzat erabili daitekeen hizkeran *txitxi* hitzak, janariari badagokio, okela, txorizo, gazta edo zapore biziko janariaren bat adierazi ohi du, eta *papa* hitzak, ogia, gaileta, edo zapore motelagokoren bat; gehienetan ogia.

Mixo-mixooote
Non izen zaraate
Solaguuunen
Zer egiiiten
Gaztaia eta ogia
Jaten, jaten, jaten.

Mixo-mixooote
Non izen zaraate
Solaguuunen
Zer egiiiten
Txitxi eta papa
Jaten, jaten, jaten.

4.4.2. Arraskala Tximine



Umea altzoan norbere belauen ganean jarrita dala, jagi txikiak eragin dakizkioke, edo beste barik, aulkian jarrita, atzera eta aurrera eragin nagusiaren gorputzari eta honegaz batera, altzoan den umeari. Mugimendu hau berdin egin ohi da *Arraskala tximine*, *Din Dan*, *Jose Mose* edo *Txominen Andrie* errezitatuetan.

Arraskala tximiine
Muztur zikinduna
Neskazar bizer luuuz
Judasen laguna
Nolako saltzailiia
Halako erostailiia
Neskazarrak izan du
guztizko portunia

4.4.3. Din Dan



Din dan nor hil da
Peru zapataria
Zer egin dau pekatu
Auzoko txakurre urkatu
Hori ez da pekatu
Hori ez bada pekatu
Erromara langan urkatu.

4.4.4 Jose Mose



Jose Mose kitterra
Ahuntze lango bizerra
Botako leuke, botako leuke
Prantzierainoko uzkerria
Prantzien deuko kortie...
Sagar ustelez betie.

4.4.5 Txominen Andrie



Bat, bi, hiru eta lau
Txominek andrie falta dau
Txominek deuko dendie...
Sagar ustelez betie.

4.4.6. Atuxe Matuxe



Errezitatu honek interakzioa ere lantzen du, umeak gutxi-asko berbetan jakin ohi du eta bere kolaborazioa behar da: hatzamarra geldu eduki behar du eta gero galderei erantzun behar die.

Umearen hatzamar bat eta norberaren beste bat, puntaz-punta elkar jotzen ipini mahai ganean edo belaunaren ganean eta ondoren, geldu dauden hatz bietan baterik bestera erabili norbere beste eskuko hatz punta, bitartean errezitatuaren erritmoa hartuz. Azkenean, ezustean umearen eskua norbere esku biek hartzen da.

Atuxe matuxe
Zerren arren
Domine patri
Ene semie
Errotatik
Netorrela
Topau neban
Asto bat
Kendu neutsen
Buzten bat

Ipini neutsen
Beste bat
Txingili txingili
Punte punte
Jesus! (bat-batean, ezustean, umearen eskua norbere esku bien bitartean hartu)
-Titirri ala patarra?
-Titirri (umearen bekokia hiru bider ukitu)
-Titirri ala patarra?
-Patarra (umaren esku ganea hiru bider igurtzi)

4.4.7. Susubil



Susubil hitzak badu errezitatu ez den beste erabilera bat ere. Umeek *Hau zer da?* galdetzen hasten direnean, etengabe egiten dute galdera bera. Galderari erantzun eta erantzun, nagusiak, galdera gehiegi direlako, katea moztu nahi duenean, jada gehiago erantzun nahi ez duenean, *susubil* hitza esaten dio, eta hurrengo galderei ere berdin, *susubil*.

Beste erabilera errezitatu da, hatzamarrekin jolas egiten da eta ideiak kateatzen dira.

Hau zein da? *Susubil* (zortzi bider galdera bera, bakoitzean hatzamar bati helduta. Eta zortzietan erantzun bera emoten du umeak.)

Hau zein da? Aitite (bederatzigarren hatzamarra)

Hau zein da? Amuma (hamargarren hatzamarra)

Burrin burrun (norbere besoak biraka elkarren inguruan)

Nire lapikotxuko zopak, nok jan ditu?

Txakurrak eta katuak

Txakurra eta katua, nora joan dira?

Eskilaretan gora

Eskilarea, non da? Suak erre

Sua, non da? Urak amatatu

Ura, non da? Kortako zekorrak edan

Kortako zekorria, non da? Dirutan saldo

Diruak, non dira? kartetan galdu

Kartak, non dira? Horma zuloan usteldu

Burrin burrun (besoak biraka)

4.4.8 Esa bat



Errezitatu antzeko kanta edo kanta antzeko errezitatu dugu hau. Batetik hamahirura jotzen du banan-banan eta zenbaki bakoitza erligio katolikoaren elementu ezagunen bati lotzen zaio. Zenbaki bat aurrera eta beste guztiak, lotu zaien ezaugarriarekin batera, atzeraka errepikatzen dira, eta, ezinbestean, ahapaldiak gero eta luzeago bihurtzen dira.

Memoria, progresioa eta erregresioa lantzen dira errezitatu hau ikastean eta, pentsa daiteke, hau ikasteko urte batzuetako umea behar dela; ez du horrek kentzen, umea txikiago denean, hitzak ulertzen ez dituenean, ahots monotono eta azken unera arte ezustekorik ez duenaren babesean, lo geratzeko baliagarri ere izan daitekeenik.

Esa bat, geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esa bi, Erromako altarak bi,
Geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esan hiru, hiru Trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esa lau, lau ebangelistiak lau,
Hiru Trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure Jauna bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esan bost, Jesukristoren bost lagak bost,
Lau ebangelistiak lau,
Hiru Trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esan sei, sei argilarixuak sei,
Jesukristoren bost lagak bost,
Lau ebangelistiak lau,
Hiru Trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esan zazpi, zazpi sakramentuak,
Sei argilarixuak sei,
Jesukristoren bost lagak bost,
Lau ebangelistiak lau,
Hiru Trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esa zortzi, zortzirik dira zeruan,
Zazpi sakramentuak,
Sei argilarixuak sei,
Jesukristoren bost lagak bost,
Lau ebangelistiak lau,
Hiru Trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esa Bederatzi, bederatzi ordenamentuak,
Zortzirik dira zeruan,
Zazpi sakramentuak,
Sei argilarixuak sei,
Jesukristoren bost lagak bost,
Lau ebangelistiak lau,
Hiru Trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esan hamar, hamarrak mandamentuak hamar,
Bederatzi ordenamentuak,
Zortzirik dira zeruan,

Zazpi sakramentuak,
Sei argilarixuak sei,
Jesukristoren bost lagak bost,
Lau ebangelistiak lau,
Hiru Trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esa hamaika, hamaika mila aingeruak,
Hamarrak mandamentuak,
Bederatzi ordenamentuak,
Zortzirik dira zeruan,
Zazpi sakramentuak,
Sei argilarixuak sei,
Jesukristoren bost lagak bost,
Lau ebangelistiak lau,
Hiru trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esa hamabi, hamabi apostoluak,
Haimaika mila aingeruak,
Hamarrak mandamentuak,
Bederatzi ordenamentuak,
Zortzirik dira zeruan,
Zazpi sakramentuak,
Sei argilarixuak sei,
Jesukristoren bost lagak bost,
Lau ebangelistiak lau,
Hiru Trinitadeak hiru,
Erromako altarak bi,
Geure Jaune bera da bat, berak salbatuko gaituzan.

Esa hamahiru oilarrak joten dau munduan,
Aingerutxo eder bat zeruan,
Izten dodala neure arimia
Ama Birginiaren altzoan.

5. Mikroipuinak

Peru eta Mariaren ipuinak, ugari dira. Peru inozoa, Maria jakituriaz beteniko emakumea, bikote elkar hartua, egundo eta bada.

5.1. Peru eta Maria

Imaginatzeko kontuak dinok ipuin honek, absurdoa, nagusiaren ikuspuntutik, zentzun bakoa; kontatu kontatzeagatik, nola biziko da, bada, txaltxua, txikiena ere, lapikotxu baten, gainera, lapikotxua bada, lapikoen artean ere, txikia den lapikotxuan.

Baten bizi ziren Peru eta Marixe,
Jostorratza eta Harixe,
Anton eta Txorixe
eta lapikotxu baten....
txaltxu txikixe.

5.2. Subilaurki



Zer izan daiteke ederragorik Bilbora joatea, erdera ikastea eta ez dakienaren aurrera jakituriaz beterik itzultzea baino? Hemen ba, hirira ostera egin duenaren kontakizuna, umearekin eta hizkuntzarekin olgetan.

Esan eutsen emakume batek beste bati:

-Siéntate subilaurki. Neska!, Bilbon izan nona eta erdera ikasi junat.

6. Aipamenak

Ball, P. (2010). El instinto musical. Escuchar, pensar y vivir la música. Madrid: Turner Publicaciones S.L.

Flem, L. (2009). Nola banandu nintzen neure alaba eta neure ia-semearengandik. Irun: Alberdania.

Arsuaga, J. L. El día menos pensado, in RNE (2013-05-23). <http://www.rtve.es/alacarta/audios/el-dia-menos-pensado/dia-menos-pensado-quinta-hora-23-05-13/1833144/#aHR0cDovL3d3dy5ydHZlLmVzL2FsYWVhcnRhL2ludGVybm8vY29udGVudHRhYmxlLnNodG1sP3BicT0xMiZtb2RsPVRPQyZsb2NhbGU9ZXMmcGFnZVNpemU9MTUmY3R4PTU3OTcwJmFkdlnlYXJjaE9wZW49ZmFsc2U>

Pásaro, M. R. (2002). Las bases biológicas de la felicidad. Universidad de Sevilla. <http://www.youtube.com/watch?v=GVb9rszZ4Rk>

Trehub, S. Los bebés comprenden la música. In RTVE. Redes (2013-04-21).

<http://www.youtube.com/watch?v=adm9VrzhA-g>